



EBAZPENA, 2023ko otsailaren 16koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 2022-2023ko ikasturtean unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka-deialdiaren eskaerak ebazteko 5. behin-behineko proposamena egiten duena.

2022ko ekainaren 21eko aginduaren bidez (2022ko uztailaren 5eko EHAA), Hezkuntza sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2022-2023ko ikasturtean unibertsitate- eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

2022ko ekainaren 21eko aginduak 37. artikuluan xedatutakoaren arabera eratu diren hautespen-epaimahaiek banaka aztertu dituzte ebazpen honen I. eranskinean adierazitako eskaerak eta aipatutako eskaerei buruzko ebazpen-proposamena egin da.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozeduraren gainontzeko arauak bete direnez,

EBAZTEN DUT

Lehen artikulua.- Deialdi hori ebazteko bosgarren proposamenaren berri ematea 2022-2023ko ikasturtean unibertsitate- eta beste goi ikasketa batzuk egiteko deialdian parte hartzen duten eskatzaileei. Eranskinean, laguntzak emateko edo ukatzeko proposamena duten eskabideak zerrendatzen dira. Eskatzaileek beken aplikazioaren bidez eskura ditzakete eskabideari buruzko ebazpenaren xehetasunak.

Bigarren artikulua.- 10 egun balioduneko epe bat irekitzea, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, eranskinean aipatzen diren eskatzaileek beka emateko proposamenaren kontra alegazioak aurkezteko edo proposamena onartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 16a.

Miren Artaraz Miñón
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria